

ITSASONDO / Liburutegirako txartel berria atera dute

ITSASONDO

Herritarrek liburutegira eta KZgunera sartzeko txartel berria lortzeko aukera izango dute. Itsasondoko Udalak herritarrei zerbitzu hobea eman nahi die horrela. Txartel berriarekin norberak nahi duenean sartu ahal izango du liburutegira, baita han arduradunik ez badago ere. Liburuak ikusi eta irakurtzeaz gain, KZguneko ordenagailuetan ibiltzeko aukera, edota egunkariak eta aldizkariak irakurtzeko modua izango dute. Txartel berria lortzeko etxez etxe banatu den orria bete eta 2 euro ordaindu behar da. 16 urtetik gorako herritarrek erabili ahal izango dute zerbitzua. Adin txikikoek gurasoen baimena beharko dute. Udaletik adierazi dutenez 6 hilabeteen probatuko dute zerbitzua, herritarren erantzuna ikusteko. Liburutegiko berrikuntzen berri emateko orria banatuko dute etxeetara; www.itsasondo.net webgunean ere jarriko dute informazioa.